

Ihesi

Pirinioetako zeharkaldia

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
GORKA AZKARATE

Hendaiatik Hiru Erregeen Mahaira (III)

Orbaizeta-Larraine

2.000 metrotik goiti

Orhiko gailurra Pirinioetako lehenengo bi-milakoa da Kantauri itsasotik gatzela. Zenbaiten ustez Euskal Herriko mendirik lerdin eta handiosena, ezohiko neurri eta ia gailurreraino estaltzen duten goi larreen jantziagatik. Orhiko gailurrera heldu aurretik, ordea, oroimenean betiko iltzaturik geratuko zaigun hainbat eta hainbat txoko igaroko dugu zeharkaldiko hirugarren atalean.

Hiru Erregeen Mahaia geroz eta hurbilago dago eta harainokoak txunditurik utziko gaitu. Orbaizetako ola zaharrea (800 m) hasita Organbideko lepora doan baso pista jarraituko dugu. Lau kilometro inguru osatu ostean Azpegiko lepora (1.050 m) helduko gara, lehenago Urkuluko dorretik datorren bidearekin bat egingo

dugun bidegurutzera pasako dugu. Orreagatik Orbaizetarakoa osatu genuenean, Azpegiko lepo honetan agurtu genuen Hiru Erregeen Mahaira doan bidea, etapa amaiera Orbaizetan egiteko. Orain, beraz, bidean gara berriz ere. Zailtasun handirik gabe osatuko ditugu Azpegiko lepotik Organbiderainokora dauden bi kilo-

metroak, baso pistari jarraituz. Organbideko lepoa, 988 m, Nafarroa garaia eta behearen arteko muga. Iparraldera, Errobi ibaiaren sorlekua dagoen sakona. Ekialdera, berriz, Errozateko gailur piramidala bistaratuko dugu estreinakoz.

Atsedean hartu ondoren, Organbideko lepoan dagoen zutoinak




Larraineko mendatea eta Auñamendiak Orhiko gailurretik.

markatutako norantza jarraituz Euskal Herriko txoko liluragarri-
netako batera iritsiko gara, mendi
bide zabal bat hiru kilometroz

jarraitu ostean: Harpeako kobara.
Elhursaroko txabolak igaro eta zen-
bait metro jaitsiko ditugu. Parekorik
ez duen tolesdura batek ezkututzen

du koba bitxia. Kobatik gertu txa-
bola pare bat aurkituko ditugu, eta
kobaren aurrealdean, Errobi ibaia
bilakatuko den uharrea jaiotzen da,
ingurua egurats berezi batez kutsa-
tuz. Uharreak, Harpeako arroila
zeharkatzen du, baina desagertu
egiten da bat-batean, Errobiko Itur-
begietan ostera azaltzeko. Behero-
bia igaro eta Esterenzubitik Doni-
bane Garazira iritsiko da, ordurako
Errobi bilakaturik.

Eremuaren handitasunak erabat
sorginduko bagaitu ere, Errozateko
lepora igo beharrak hankak lurrera
ekarraraziko dizkigu instantean.
Aukera bi daude aipatu lepora hel-
tzeko: lehenak, zailtasun gutxien
duenak, Harpeako arroilan behera
doan bidexka jarraituko du, harik
eta uharrea zeharkatu eta erreka-
staren bestaldetik Beherobitik Erro-
zateko lepora doan bide zabalarekin
bat egin arte. Guk ondoren igo
behar izateko aurrez jaisteari alfe-
rrikako iritzita, Harpeako kobaren
gainera igo eta belarrezko malda
bortitzean gora egingo dugu ahal
bezala, bistan dugun muinora heldu
arte. Malda bortitza da benetan, eta
majo kostako zaigu gora egitea.
Komeni da, bestalde, eguraldi
hezearekin gisako malda belartsu
pikoak saihestea, eroriko batek
Harpeako kobako sarreran bertan
paratuko baigintuzke segundo
gutxitan. Izerdi pixka bat isuri eta



1 Orbaizeta-Egurgu

15 km, 900 metroko igoera metatua.

Etapa Egurgiko zubian amaitzea proposatzen den arren, ibiltzera ohiturik dagoenak etapa hau eta hurrengoa egun bakarrean egiteko ez luke zailtasun handirik izan behar. Hala ere Egurgiko txabolak gaua pasatzeko zortea duenak nekez ahaztuko du bizipena.



Harpea.

Errozateko lepora helduko gara (1.076 m). Beste ahalegintxo bat eta Errozateko gailur lerdenera iritsiko gara (1.345 m). Esan gabe doa, ikuspegia zoragarria dela norabide guztietan. Pozik, lepora itzuli eta Artxilondoko sakonerako jaitsierari ekingo diogu. Iratiko bihotzerantz goaz ibilian, Irabia urtegiaren muturrean dagoen sakon baterantz; Egurgiko sakonerantz. Osatu berri dugun etapa zoragarria burutik kendu ezinda, Egurgiko txabola librean atseden hartuz gero naturak gauzez lorik egiten ez duela sumatuko dugu.

2 Egurgi-Bagargia

16 km, 1.000 metroko igoera metatua.

Bagargiako lepoa Iratiko oihanerako sarrera naturala da Larraine herritik gatzozela; bertan daude Iratiko txalet famatuak. Gaua igarotzeko aukera dago; taldean joanda hobe, aukeran.

Okabeko gailurra zain dugu botak jantzi, motxila bizkarreratu eta ibilbideari ekin orduko. Artxilondoko larreetatik ere bagenuen Okabera zuzenean igotzeko aukera, baina aurreko etapa Egurgin amaitu genuen,

Okaberen Urkuluko gandorra menderatuz egin beharko dugu gorantz igoera ederrean. Kurutzeko eta Oraateko lepoak pasata gailur historiko honetara helduko gara. Okabe (1.466 m).

Kontakizun honetarako datuak biltze aldera bertara txangoa egin genuenean behelainoaren opakotasunak bere atzaparretan hartua zuen. Lehendik ezagutzen dugulako esan dezakegu ikuspegia gogoangarria dela handik. GPS aldentezinari jarraituz, Ilarritako harrispila sonatuak dauden muinorantz jo genuen, Artxilondoko sakonetik etorri

ziruditen oihuak entzun genituen; oihuak gerturatzen somatu genituen, harik eta azkenean behelaino trinkoak mendizale bi parera jaur-

ti zizkigun arte. GR-10 egiten ari eta Artxilondoko sakonerantz jo zuten, Irauko lepora ustetan. Surzaiko lepora gurekin etor zitezten gonbidatu genituen, GPS-aren babesean. Hala, errepidez osatuko zuten Surzaiko lepotik Irauko leporainokoa. Aurpegian lasaitasun keinua marraztu zuten bi ardi galduak, eta, solasa eteteko asmorik gabe, Surzaiko leporantz jo genuen, hilabete osoko kontakizunari ekiten zioten bitartean. Izan ere gure zeharkalditxoaren anaia zaharra osatzear zeuden bi mendizaleak, Okaben erdi galdurik ibiliagatik. Ez zen makala!

Elkar agurtu genuen Surzaiko lepoan, Esterenzubi baitzuten eurek jomuga eta Iratiko oihana inguratzen duen Mendibel-Eskalerak gandorra zeharkatzea guk. Bizkor, Burdinkurutzeta mendatera helduko gara (1.135 m), eta hemendik Eskalerak gailurrean (1.472 m) amaituko den zeharkalditxo paregabe bati emango diogu hasiera, Mendibel (1.411 m), Arthanolatze (1.530 m) eta bigarren mailako beste zenbait gailur igo ostean. Eskalerak gailurretik berehala jaitsiko gara Bagargiara (1.320 m). Orhiko gailurra zain daukagu.

Iratiko oihana

Irati zabala da (17.195 Ha). Aspalditik probestu dute abereek bazkatzeko, eta gizakiak ehizarako, eta egurretarako. Balio natural eta ekologiko handikoa da; izan ere, bertan dago Europako izeidi pagadirik handienetako bat.

Basoa gaztea da -12.000 urte baino gutxiago du-. Garai batean haritza omen zen nagusi, baina egun ale bakan batzuk baino ez dira geratzen. Azken mendeetako mendi

ustiapenaren eraginez, izeidiak gutxitu egin dira, eta egun pagoa da zuhaitz mota nagusia. Beste espezie batzuk ere badaude Iratin, esaterako, otsalizarra, astigarra, sahatza, ezkia, zumar hostozabala, eta zuhaixken artean, ezpela, hurritza, gorostia, elorri zuria, ipurua eta basarana. Azkenik, goroldioa, iratzeak eta likenak ere badaude.

Eta horien artean gordeta animaliak, oreina eta basurdea adibidez.

Udazkenean izango dugu lehen entzungai, marrualdia hasten denean. Basurdea nekez bistaratuko zaigu, hori bai lurrean uzten dituen arrastoak atzematea ez da zaila. Animalia gehiago ere bizi dira Iratin: orkatza, basakatua, ipurtatsa, erbinudea, lepahoria...





Zazpigañara bidean, Alupiñako gandar aereoan.

3 Bagargia-Larraine

2 km, 1.000 metroko igoera metatua.

Orhiko gailurrera igotzeak aparteko zailtasunik ez duen arren, isurialde honetatik igoz gero Zazpigaña eta Orhi mendien artean dagoen Alupiñako atakak zailtasunak sor diezazkieke goi mendian ibiltzera ohiturik ez daudenei. Komeni da jakitea Alupiñako ataka iparraldeko isurialdetik igarotzeko aukera badela.

Bagargia (1.320 m). Goizean goiz hartu dugu Pelusagainako tontorrera daraman bidea. Igoera lasaian paisaiatzatuz, Orhi mendiari begira begiak betetzeko aukera izango dugu. Urrun dago Orhi oraindik. Eguneko lehenengo atsedena hartuko dugu Murkuillako lepoan, Mullagateko gandorrari ekin aurretik. Uneoro bistan izango dugu Orhi, eta eztena izango da aurrera eragiteko. Tartako lepora heltzearekin batera txantxak amaitu direla ohartuko gara: Zazpigañako malda bortitza parean dugu dagoeneko.

Malda belartsu eta harkaiztsua gainditu eta Zazpigañako gailur lerdenera helduko gara (1.765 m). Orhi pareparean dugu, Alupiñako ataka baizik ez dugu tartean. Atakara Zazpigaña



mendiaren iparraldeko aurpegitik doan xenda jarraituz jaitsi gaitezke, edo gailurrera zorabiagarri samarra igaroz —ederragoa, ezbairik gabe, mendizaleagoa—. Behin atakara helduta, azken malda piko bat gainditu besterik ez dugu izango, Kantauri itsasotik gatozela bi mila metroz goiti dagoen lehenengo gailurrera iristeko. Orhi (2.017 m).

Ikuspegia zoragarria da norabide guztietan. Etapa amaiera begien bistan dugu dagoeneko: Larraineko mendatea (1.573 m). Jendez gainezka egon ohi den Orhiko gailurra agurtu eta, bide errazetik Larraine eta Otsagabia batzen dituen errepidera helduko gara azkar batean. Hiru Erregeen Mahaia bertan dago. ■



EUSKADI BTT-N



NATURA
KULTURA
GASTRONOMIA
KIROLA

Zure bizikleta prestatu!
Zatoz euskadiko BTT zentroetara



EUSKADI
atsegin handiz
con mucho gusto

www.paisvascoturismo.net